

Año LIII. urtea

132 - 2021

Uztaila-abendua  
Julio-diciembre



# FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

**Modalitate-markatzaileak:  
partikula modalak ote  
dira euskarazko  
*partikula modalak?***

Sergio Monforte

# Sumario / Aurkibidea

## Fontes Linguae Vasconum. Studia et Documenta

Año LIII. urtea - N.º 132. zk. - 2021

Uztaila-abendua / Julio-diciembre

### ARTIKULUAK / ARTÍCULOS / ARTICLES

#### Euskararen erritmoa neurtzen

Oroitz Jauregi 257

---

#### Egiarretako hiru eskuizkribu euskaraz (XVIII.-XIX. mendeen mugan)

Juan Madariaga Orbea, Jose Luis Erdozia Mauleon 279

---

#### Hizkuntza-tratamenduak *Dragoi Bolan*: hierarkia, gaiztotasuna eta etsaitasuna

Garbiñe Bereziartua, Beñat Muguruza 319

---

#### *Do It Yourself*etik planifikaziora.

#### Euskal hiztun gazteak eta berreskurapenaren auziak

Jone M. Hernández García, Ainara Santamaria Barinagarrementeria 349

---

#### Egiletasuna eta gorputza kritika feministaren argitan.

#### Miren Agur Meaberen *Kristalezko begi bat* nobelaren irakurketa bat

Ibon Egaña Etxeberria 375

---

#### Oltzako aldaeraren inguruan (1 – Arakilgo azpialdaera)

Koldo Artola 403

---

#### e5: euskararen komunitatearen garapenerako marko interpretatibo berria

Jone Goirigolzarri Garaizar, Inazio Marko, Ibon Manterola 473

---

#### Karmele Jaioren *Aitaren etxearen* kritika kolektiboa eta feminista:

#### proposamen metodologiko berritzailea

Gema Lasarte, Andrea Perales-Fernández-de-Gamboa 497

---

#### Modalitate-markatzaileak: partikula modalak ote dira euskarazko

#### *partikula modalak?*

Sergio Monforte 515

---

#### Praktika eleanitzak eta euskara, ingelesa irakas-hizkuntza bihurtzen denean:

#### kasu-azterketa bat

Nerea Villabona, Mikel Gartziarena 543

---

#### Idazlanak aurkezteko arauak / Normas para la presentación de originales /

Rules for the submission of originals 565

---

# Modalitate-markatzaileak: partikula modalak ote dira euskarazko *partikula* *modalak*?

---

Partículas modales: ¿son realmente las *partículas modales* del vasco partículas modales?

---

Modality markers: are the Basque *modal particles* really modal particles?

Sergio Monforte

Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

sergio.monforte@ehu.eus

<https://orcid.org/0000-0003-4987-3315>

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv132.9>

Esker onak eskaini nahi dizkiet berrikusle anonimoei, euren oharrek artikulu hau hobetzen lagundu baitate. Halaber, Maitena Duhalde de Serrari eskertu nahi diot hainbat daturen berrestearren. Ikerketa hau Espainiako Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioak diruz lagundutako PGC2018-100686-B-I00 ‘Euskarazko zenbait partikula funtzionalen azterketa (modala, ezezkoa, konplementatzailea)’ izeneko proiektuaren parte da. Akats guztiak nireak dira.

Jasotze-data: 2021/09/23. Behin-behineko onartze data: 2021/11/18. Behin betiko onartze data: 2021/11/23.

## LABURPENA

Lan honetan euskalaritzan partikula modaltzat hartu ohi direnak modu kritikoan aztertu dira tipologikoki izendapen bera duten elementuen ondoan aldea ikusita. Bi propietate morfosintaktikori erreparatu zaie: a) ea beste osagai bati atxiki behar dioten eta b) ea mendeko testuinguruetan ager daitezkeen. Euskarari begira, tradizioko partikula modalek (*ahal, bide, ei, omen* eta *ote*) markatzaile modal enklitikoaren moduan jokatzeko dutela ondorioztatu dut. Hala ere, beste batzuek partikula modal prototipikoaren antzeko jokabidea dute; hau da, hizketa-ekintzaren operatzaile morfologikoki beregainak dira: *bada, baina, berriz, gero, ordea* eta ekialdeko *ote* hain zuzen.

**Gako hitzak:** ebidentziala; epistemikoa; partikula modalak; morfosintaxia.

## RESUMEN

El presente trabajo analiza críticamente las partículas consideradas *modales* por la vascolología partiendo del contraste entre éstas y los elementos que tipológicamente tienen la misma denominación. Se han observado dos propiedades morfosintácticas: a) si deben combinarse con otro componente y b) si pueden aparecer en contextos subordinados. He concluido que en euskera las partículas modales tradicionales (*ahal, bide, ei, omen, ote*) se comportan como marcadores modales enclíticos. Sin embargo, el comportamiento de otras se asemeja al de las partículas modales prototípicas, es decir, a operadores morfológicamente independientes de actos de habla: *bada, baina, berriz, gero, ordea* y *ote* oriental.

**Palabras clave:** evidencial; epistémico; partículas modales; morfosintaxis.

## ABSTRACT

This work critically analyses the particles that are usually considered *modal* in Bascology, considering their separate behaviour in comparison to the elements that typologically have received the same denomination. For this, two morphosyntactic properties have been analysed: a) if they must merge with another component and b) if they can appear in embedded contexts. As for Basque, I have concluded that traditional modal particles (*ahal, bide, ei, omen* and *ote*) behave as enclitic modal markers. However, others function in a similar way to the prototypical modal particles, specifically morphologically independent speech act operators: *bada, baina, berriz, gero, ordea* and eastern *ote*.

**Keywords:** evidential; epistemic; modal particles; morphosyntax.

1. SARRERA. 2. MODALITATE-MARKATZAILEAK HIZKUNTZARTEKOAN. 2.1. Izaera morfosintaktikoa: atxikigarritasuna. 2.2. Mendeko testuinguruetan txertagarritasuna. 3. EUSKARAZKO TRADIZIOKO PARTIKULA MODALAK. 3.1. Tradizioko partikula modalak hizkiak dira. 3.2. Tradizioko partikulak ebidentzial-epistemiko modalak dira. 4. PARTIKULA MODALEN TALDEA BERREGITURATZEN. 4.1. Modalitate-markatzaileak: partikula modalen izaera argira. 4.2. Bestelako partikulak hizketa-ekintzaren operatzaileak dira. 5. ONDORIOAK. 6. CORPUSA. 7. ERREFERENTZIAK.

## 1. SARRERA

Partikula modalen kategoriaren zerrenda laburra da euskaraz hizkuntza germanikoekin konparatuz gero; gramatiketan hurrengoak zerrendatu ohi dira: *ahal*, *al*, *bide*, *ei*, *omen* eta *ote*. Hala ere, azken ikerketek (Lizardi-Ituarte, 2019; Monforte, 2020b; 2020c) handitu egin dute euskarazko partikula modalen kopurua eta, besteak beste, honakoak gehitu zaizkio aurreko zerrendari: *antza*, *bada*, *baina*, *berriz*, *gero*, *ordea*<sup>1</sup> eta ekialdeko hizkeretan jokabide bereizia duten *omen* eta *ote*<sup>2</sup>. Hala ere, azken hauen artean aldea badago, banaketa askeagoa baitaukatete horietako batzuek. Honela sailkatzzen ditut, hizkuntza germanikoetako partikula modalen ezaugarriak aintzat hartuta:

1 Beste hizkuntzetako partikula modalen multzoan ohikoa den bezala, zerrendatutako kide horiek beste funtzio bat daukate: *antza* izena, *bada* baldintza edo lokailua, *baina* juntagailua (/ adberbioa), *berriz* adberbioa edo lokailua, *gero* adberbioa, *ordea* lokailua (/ adberbioa). Esate baterako, *ordea* modu bi hauetan erabil daiteke:

(i) Nik nahi dut, zuk, berriz, ez. (Euskaltzaindia, 2016) [lokailuaren irakurketa].

(ii) Onexek (g)ixon onek artu dau eta, barris, agoan dauko gordeta. (Etxebarria, 2016, 230. or.) [partikula modalaren irakurketa].

Artikulu honetan osagai horiek aipatzean partikula modalaren irakurketak eta euren erabilera edukiko ditut hizpide, besteak (lokailu, juntagailu, adberbio eta abarren funtzioak) albo batera utzita.

2 Ekialdeko hizkeretan bi partikulak (*omen* eta *ote*) jokabide sintaktiko ezohikoa daukate, ez baitute aditz jokatuarekin bat egin behar (Etxepare & Uria, 2016; Monforte, 2020c). Aitzitik, ez daukate interpretazioaren aldetik desberdintasun nabarmenik, partikula horien erabilera onargarria baita ohiko kokapenean agertuz gero.

(i) Non utzi dut ote kazeta? = Non utzi ote dut kazeta?

Bestalde, ez du ematen gainerako partikulek (*ahal*, *bide*) jokabide ezohiko hori dutenik; euskarazko corpusean, behintzat, ez dira lekukotzen.

1. taula. Partikula modalekin pareka daitezkeen euskarazko osagaiak

Banaketa zurrunagoko osagai eransgarriak	Banaketa zurrunagoko osagai beregainak	Banaketa askeko osagai beregainak
<i>ahal, al, bide, ei, omen eta ote</i>	<i>bada, baina, berriz (?)<sup>3</sup>, gero, ordea eta ekialdeko hizkeretan jokabide berezia duen ote</i>	<i>amene(z)ko, antza, erraz (?), burrean, iduriz, itxurea, ustet, üdürjala eta ekialdeko hizkeretan jokabide berezia duen omen</i>

Lehenengo zutabeak, batetik, eta bigarren eta hirugarrenetakoak, bestetik, sintaktikoki eta diakronikoki desberdinak dira. Esate baterako, sintaxiari dagokionez lehenengoek aditz jokatuarekin bat egiten dute; besteek, ordea, ez. Garapen historikoaren aldetik lehenengo gehienak aditzetatik eratorriak dira (Lakarra, 2019; Monforte, 2020c); besteak, berriz, adberbio, postposizio edo esaldi parataktikoetatik<sup>4</sup> (Monforte, 2020a). Artikulu honetan lehenengo eta bigarren zutabeetan bildutako baina ez diet erreparatuko, lehenengoak euskalaritzan partikula modaltzat jo direlako eta bigarrenak partikula modal prototipikoetatik gertuagoa daudelako<sup>5</sup>.

Tipologiatik begiraturaz gero, modaltasuna (ebalutzaitetasuna, ebidentzialtasuna eta epistemikotasuna) adierazten duten osagaiak bi multzotan banatu ohi dira hainbat ebidentzia semantikotan oinarrituz: a) ekarpenaren besarkadura edota muga; b) ezeztagarritasuna; c) mendeko perpausetan txertatzeko aukera<sup>6</sup>; besteak beste. Bereizten diren bi talde horiek hauexek dira: proposizio-mailari eragiten dioten ebalutzaitasuna, ebidentzial eta epistemiko modalak, eta indar ilokutiboa gauzatuta egotea behar duten hizketa-ekintzaren operatzaileak. Ildo horretatik Tanek eta Mursellek (2018) tagaloko eta alemaneko partikula bana aztertzen dituzte eta erakusten dute, beroriek interpretazio antzekoa duten arren, nabarmena dela euren arteko aldea (a, b eta c) propietate horiei dagokienez. Hortik abiatuta ondorioztatzen dute Tanek eta Mursellek (2018) tagaloko partikula ebidentzial modala dela, eta alemanekoa hizketa-ekintzaren operatzailea. Ezaugarri semantikoek gain, jokabide morfosintaktikoa (beste hitz batzuekin bat egiten duten, perpaus-mailan banaketa zurruna duten, eta abar) aintzat har daiteke osagai horiek multzokatzeko. Esate baterako, atxikigarritasunari begira ere bi talde bereiz daitezke: beste hitz bati eransten zaizkion horiek (kitxua, salish, tagalo bezalakoak)

3 Galdera-ikurraren bidez adierazi nahi dut partikula hori bat datorrela corpusetan agertzen den besteekin jokabide sintaktikoa aintzat hartuta, baina beharrezkoa da landa-lana egitea murriztapen sintaktikoak hobeto ezagutzeko.

4 Van Bogaert & Leuchnerrek (2015) proposatzen dute nederlanderazko partikula modal batzuk esaldi labur beregainetatik eratorriak direla. Autoreek *esaldi parataktiko* deritzete beste perpaus batean esandakoa ebaluatuta eta beraren ikuspuntua gehitzen diotelako diskurtsoari. Euren hipotesiaren arabera, perpaus horiek parentetiko bihurtzen dira, ebaluatzen duten perpausaren barruan agertzen baitira (nahiz eta diskurtsoaren eta prosodiaren aldetik beste maila batean dauden); ondoren, gramatikalki murriztu ahala gehiago txertatu eta partikula modalen jokabide eta izaera islatzen dute.

5 Partikula modalak gehienbat hizkuntzalaritza germanikoan landu direnez, horiek hartu dira abiapuntu lan honetan. Horrexegatik, 1. taulako hirugarren zutabeak baztertu dira, ez baitiote hizkuntza germanikoko partikula modalen jokabideari jarraitzen banaketari dagokienez batez ere.

6 Azken horri hala sintaxitik nola semantikatik begira dakiok, aurrerago (§ 2.2.) erakutsiko dudana bezala.

eta osagai beregainak (hizkuntza erromantzeetakoak, kasurako). Are gehiago, lehenengoak bi multzotan sailkatzen dituzte Zwickyk eta Pullumek (1983). Bateko, klitikoak daude; horiek ez ei dira oso zorrotzak bat egiteko hautatzen duten osagaiari dagokionez eta, beraz, kategoria desberdinetako osagaiei atxikitzen zaizkie. Besteko, hizkiak ditugu; horiek kategoria jakin bateko elementuak aukeratzen dituzte bat egiteko. Ilustra ditzagun enklitiko<sup>7</sup> mota hauek:

- (1) a. jaso<sub>aditza</sub> + tzen<sub>hizkia</sub> [hizkia]  
 b. itsaso<sub>izena</sub> + a<sub>abs</sub> / gorri<sub>adjektiboa</sub> + a<sub>abs</sub> [klitikoa]

Terminologia hori hobetsiko dut artikulu honetan eta, horrez gain, *partikula* ere erabiliko dut aurrerantzean ebaluatzaile, ebidentzial eta epistemiko modalitatea adierazten duten hitz beregainak izendatzeko<sup>8</sup>.

Gauzak horrela, honako sailkapen hau proposa liteke euskarazko modalitate osagaietarako, lehenengo begirada batean: batetik, *ahal*, *bide*, *ei*, *omen* eta *ote* modalitate-hizkitzat hartuko nituzke; bestetik, *bada*, *baina*, *berriz*, *gero*, *ote*, *ordea* eta ekialdeko *ote* hizketa-ekintzaren partikula modal edo diskurtsiboak<sup>9</sup>. Sailkapen eta multzokatzeko horiek argitzea ezinbestekoa da analisi sintaktiko fidagarriagoak egiteko; *ahal*, *al*, *bide*, *ei*, *omen* eta *ote* partikulen ezaugarri sintaktikoak aztertu eta alemaneko partikulekin konparatzean ikusten da bat datozela hainbat propietatetan, baina beste batzuetan, *ordea*, ez. Esate baterako, *omen* edo *ote* indar ilokutiborik gabeko mendeko testuinguruetan ager daitezke; alemanezko *wohl* partikula, berriz, ez. *Nz*-hitzeekin batera agertzeko ezaugarriaz beste horrenbeste: alemaneko *denn* edo *bloß* partikulek *nz*-hitzeekin bat egin dezakete; euskarazko *al* edo *ahal* partikulek, *ordea*, ez. Gainera, alemanaren jokabide horiek beste hizkuntza batzuetan lekukotzen dira. Gauzak horrela, pentsa liteke euskararen bitxikeria bat dela, desberdin jokatzeko baitu propietate horiei dago-kienez. Hala ere, fenomeno sintaktiko desberdinen aurrean gaude, artikulu honetan zehar argudiatuko dudana bezala, eta, beraz, ez dira konparagarriak. Izan ere, horiek konparatzeak azterketa eta ondorio okerretara eramanez gaitzake.

Osagai horiek sintaktikoki desberdin jokatzeko badute ere, arlo semantiko-pragmatikoan egiten duten ekarpenaren aldetik antzekoak dira. Honek berez ez gintuzke harritu behar, hizkuntza guztiek baliabide bat baino gehiago baliatzen baitituzte modalitatea adierazteko. Esate baterako, Altubek (1930, 285. or.) esaten digu euskarak badituela hainbat baliabide probabilitatea markatzeko:

7 *Enklitiko* terminoa erabiltzen dut hizkiak eta klitikoak batera multzokatzeko.

8 Irakurleari ohartarazi nahi diot *partikula* eta *partikula modal* ez direla sinonimoak lan honetan. Lehenengoak osagai horien jokabide morfosintaktikoari egiten dio erreferentzia; bigarrenak, *ordea*, artikulu honetan aztergai den kategoriari.

9 Tradiziozko partikula modal bat ez da sailkapen honetan agertzen, *al* partikula modala alegia, multzo bien artean baitago. Batetik, *ahal*, *bide*, *ei*, *omen* eta *oterekin* bat dator aditz jokatuarekin bat egiten baitu; bestetik, *bada*, *baina*, *berriz*, *gero*, *ote*, *ordea* eta ekialdeko *oteren* antza dauka hizketa-ekintza duten testuinguruetan bakarrik erabil baitaiteke.

- (2) a. Gaur ekarri du hurrean.  
 b. Gaur ekarri ahal du.  
 c. Gaur ekarri duke.

Adibide horretan ikus daitekeenez, euskarazko hiru baliabide erabiltzen dira: *hurrean*, *ahal* eta *-ke* morfema. Hala ere, artikulu honetan lehenengo bi baliabideei soilik erreparatuko diet eta argudiatuko dut euskalaritzan baliatutako terminologia ez dela egokia izan eta batzuk modalitate hizkiak direla eta besteak benetako partikula modalak.

Artikulu honen egitura hau da: hasteko, hizkuntzartekoan ebidentzialtasuna, epistemikotasuna edo beste modalitate mota batzuk adierazteko balio duten osagaiak ikertzeko hurbilketak aurkeztuko dira (§ 2); ondoren, euskarara itzuli eta gramatika-lanetan partikula modalen etiketapean zein osagai sartu diren aintzat hartuta, tradizionalki partikula modalizat hartu izan diren horiek aztertu eta modalitate hizkiak direla argudiatuko dut (§ 3); laugarrenik, gramatika-lan gehienetatik kanpo gelditu diren baina ebidentzialtasuna, epistemikotasuna edo beste modalitate mota batzuekin zerikusia duten osagaiak ikertu eta beroriek partikula modalizat jo behar direla frogatuko dut (§ 4); azkenik, hainbat ondorio aurkeztuko ditut (§ 5).

## 2. MODALITATE-MARKATZAILEAK HIZKUNTZARTEKOAN

Aurretik esan bezala, euskarak hainbat baliabide ditu modalitate adierazteko; hau, jakina, ez da euskarara bakarrik mugatzen eta munduko hizkuntzetan egoera bera topa daiteke; esate baterako:

- (3) Alemana
- a. *Ein Außerirdischer soll die Kuh entführt haben.* [...]   
 bat estralurtar behar ART.FEM.AK behi bahitu izan  
 'Estralurtar batek behia bahitu ei du' (Faller, 2017, 56. or.)<sup>10</sup>
- b. *Peter bringt wohl Wein mit.*   
 Peter ekarri PART ardo KOM  
 'Agian Peterrek ardoa dakar' (Döring, 2007, 101. or.)
- c. *Sie hat es scheinbar vergessen.*   
 bera.FEM.NOM LAG bera.NEU.AK antza ahaztu  
 'Ahaztu du, antza' (Duden, 2021)

Alemanak aditz modal, partikula modal eta adberbioen bitartez marka dezake modalitasuna.

10 Honako laburdurak erabili dira artikulu honetan: ADL = adlatiboa, AGIN = agintera, AK = akusatiboa, APART = aditz partikula, ART = artikulua, ERG = ergatiboa, ERL = erlatibozko menderagailua, DAT = datiboa, DEF = definitua, FEM = femeninoa, GEN = genitiboa, GER = geroaldia, IN = inesiboa, KOM = komitatiboa, LAG = laguntzailea, LEH = lehenaldia, MASK = maskulinoa, MEND = menderagailua, NEU = neutroa, NOM = nominatiboa, PART = partikula, PERF = perfektua, PERTS = pertsona, PL = plurala, PROG = progresiboa, SG = singularra, TOP = topikoa.



Argi dago semantika-pragmatikaren aldetik badaudela aukera horien artean ñabar-durak, ez baita ekonomikoa ekarpen berbera duten hainbat baliabide edukitzea. Dena den, aukera horien arteko alde sintaktikoa da lan honen helburua eta alderdi horretan nabarmena da desberdintasuna. Hainbat propietateren arabera aztertu daitezkeen arren, artikulua honetan bitara mugatuko naiz: atxikigarritasuna eta mendeko perpau-setan txertagarriak izatea.

## 2.1. Izaera morfosintaktikoa: atxikigarritasuna

Ebidentzialtasuna edota modalitate epistemikoa markatzeko hainbat bidez baliatzen dira hizkuntzak; tipologiako datuei ikuspuntu morfosintaktikotik begiraturaz gero, hiru bereiz daitezke: a) aditzaren morfologia; b) enklitikoak<sup>11</sup>; eta c) partikulak edo adberbioak (Anderbois, 2014, 239. or.). Ildo horretatik, Speasek (2008) aitortzen du *ebidentzial* etiketaren mendean agertzen diren osagaiak<sup>12</sup> oso multzo heterogeneoa osatzen dutela, ebidentzialtasunak kategoria gramatikal askotako osagaiak barne baititu; modalitatearen kasuan bezala, adberbioek, adjektiboek, aditzek eta aditz modalek aditzera eman ditzakete horrelako ekarpenak. Are gehiago, aditz inguruan azal daitezkeen markatzaile ebidentzialak mota askotakoak ere izan daitezke: aditz-hizkiak, klitikoak, partikulak, kopulak edo laguntzaileak, eta denboraren bitartez markatzeko baliatzen diren aukerak (Speas, 2008, 947. or.). Ikusten denez, egoera konplexua dago ebidentzialtasunaren eta epistemikotasunaren barruan, eta are konplexuagoa izan daiteke, Kehayovek (2008) erakusten duen bezala. Berak analisi xeheagoa eskaintzen die ebidentzialtasuna markatzen duten baliabideei eta horien zerrenda askoz gehiago luzatzen du. Dena den, lan honen helburua gogoan, aditz-hizkiak, klitikoak eta partikulak bakarrik edukiko ditut hizpide.

WALSeko (de Haan, 2013; van der Auwera & Ammann, 2013) datuak aintzat hartzen baditugu, ebidentzialtasuna (WALSeko 78A ezaugarria) edo epistemikotasuna (WALSeko 75A ezaugarria) adierazten dituzten ezaugarriak hiru multzo zabal horien artean bana daitezke (hots, aditz-hizkiak, klitikoak eta partikulak). Bestalde, WALSeko ezaugarri horiek erkatuz gero, konbinazio emankor interesgarriak islatzen dira; esaterako, epistemikotasuna adierazteko hizkiak erabiltzen dituzten hizkuntzek gehienbat hizkiak ere baliatzen dituzte ebidentzialtasuna markatzeko<sup>13</sup>. Hala ere, gogoan eduki dezagun WALSeko datuak partzialak direla eta, horrenbestez, hizkuntza batek eduki ditzakeen aukera guztiak ez direla datu-basean agertzen (Zeisler, 2016,

11 Tanek (2019, 99.-100. or.) eztabaidatzen ditu osagai horien izaera morfosintaktikoak jasotzen dituen etiketa desberdinak: klitikoak, atzizki-aurrizkiak eta partikulak. Arestian esan bezala, *enklitiko* terminoak beste hitz batekin bat egiten dutenak biltzen ditu.

12 Egia esan, Speasek (2008) etiketa bera ipintzen du zalantzan, multzo horretako osagaiak oso bestelakoak direlako.

13 Berrikusle batek dio, teorikoki epistemikotasuna eta ebidentzialtasuna bi kategoriatzat jotzen den arren, hizkuntza guztiek ez dituztela morfosintaktikoki desberdintzen eta forma berak biak marka ditzakeela. Gramatika-lanetan luze jorratu da gai hau eta, guztiz argitu ez bada ere, egun proposatzen da modu berean modalitate biak adierazten direnean bata bestetik eratortzen dela pragmatikoki (Déchaine eta beste, 2017; Lau & Rooryck, 2016; Leiss, 2012; Rooryck, 2001; Zubeldia, 2008; besteak beste).

5. oin-oharra)<sup>14</sup>. Arestian esan dut hizkuntzetan baliabide bat baino gehiago egon daitezkeela ebidentzialtasuna eta epistemikotasuna markatzeko. Egia esan, ez gara oso urrun joan behar horren berri jasotzeko: WALSen datuen arabera euskaraz epistemikotasuna aditzaren hizki baten bitartez (-ke(-)) markatzen ei da eta ebidentzialtasuna partikula bereizi baten bidez (*omen*); aldiz, *ahal* edo *bide* osagaien bitartez eta *antza* edo *hurreean* bezalako bidez ere adieraz daitezke epistemikotasuna eta ebidentzialtasuna. Beraz, tentuz hartu behar dira datu-baseak eskainitako informazioa eta balizko orokortzeak.

Oro har sailkapen horietan agertzen diren baliabideak hirutara muga litezke: a) denbora edota aspektua adierazteko ere balio duen aditzaren morfologia; b) aditzari atxikitzen zaizkion hizkiak eta modalitatea beren-beregi markatzen dutenak; eta c) morfosintaktikoki beregainak diren partikulak (edo sasi-adberbioak). Hiru aukera horietatik bi artikulatu honen ikergaiarekin bat datoz, aditzaren hizkiekin eta partikulekin alegia. Jarraian baliabide horiek ezaugarrituko ditut.

Modalitatea adierazten duten hizkiak edo klitikoak ez dira sakon aztertu morfologia edo sintaxiaren aldetik eta analisisen hutsuneak agerian geratzen dira (Kehayov, 2008, 27. or.). Aurretik esan bezala, hizki, klitiko eta partikula modalek ekarpen interpretati-boaren eremua konpartitzen dute; hots, morfologikoki desberdinak diren osagai horien bitartez modalitatea marka daiteke. Dena dela, lehenengo bien izendapenak salatzen duen legez, horiek beste hitz bati atxikitzen zaizkio<sup>15</sup>; azkenak, ordea, beregainak dira. Ikus dezagun adibide bana:

- (4) a. Kannada (de Haan, 2013) [hizkia / klitikoa]  
*Nimma pustaka avara hattira illav-ante.*  
 zure liburu bera.GEN hurbil ez-PART  
 'Zure liburua ez omen dago berarekin'
- b. Suediera (Scherf, 2017, 81. or.) [partikula]  
*Igår såg pojken nog filmen.*  
 atzo ikusi.LEH mutil.DEF PART filma.DEF  
 'Mutilak NOG atzo filma ikusi zuen'<sup>16</sup>

14 Kasu baterako, begira diezaiogun ingelesezko *tea* hitz lexikoari dagokion fitxari (138A). Bertan hitz horren balizko jatorri bi aipatzen dira: batetik, hizkuntza sinitikozko *cha* eta, bestetik, min han txinerazko *te*. Horren arabera banatzen dira munduko hizkuntzak, hots, hizkuntza bakoitzak edari hori izendatzeko hartu zuen maileguaren arabera (*cha* ala *te*). Euskarari erreparatu gero, ikusten dugu lehenengoarekin lotzen dutela (*charekin* alegia) eta, gainera, *dute* forma bakarrik dakarrela datu-baseak, hegoaldean ohikoa den *te* forma baztertuta. Horrexegatik dira datuak, kasu batzuetan behintzat, partzialak, aukera guztiak ez daude jasota eta. Horrez gain, (138A) fitxari dagokienez, analisisia ez da zuzena: *dute* terminoa frantsesetik hartu da eta, horrenbestez, min han txinerazko *te* letorke.

15 Hizkuntza batzuetako datuak aintzat hartuz gero, gramatiketako deskribapenei, hots, idatziari erreparatu behar diegu, eta horretatik abiatuta zaila da ebaztea ea modalitate-markatzailer horiek morfosintaktikoki beste osagai batekin bat egin behar duten ala transkribatzailearen hautua den.

16 Scherfek (2017) ez du partikularen itzulpenik ematen, aurrerago Munarok eta Polettok (2002) ere ez. Gauzak horrela eta gramatika-lanetan ohikoa den legez, partikularen ekarpena markatzeko partikula bera letra larriz gehitzea erabaki dut, irakurleak gogoan izan dezan itzulpen horri partikularen interpretazioa gehitu beharko litzaiokeela.

Enklitikoek kasuan atxikitzen zaion hitzaren kategoria (aurrerantzean *helburuko oinarria*) aldakorra da hizkuntzarik hizkuntza<sup>17</sup>. Datu tipologikoen arabera, ematen du kopuru handian aditzak dituztela helburu; hala ere, beste kategoria batzuei ere lotzen zaizkie. WALs (de Haan, 2013; van der Auwera & Ammann, 2013) eta Falleren (2002) datuak aintzat hartuta, lezgian hizkuntzaren markatzailea aditzei bakarrik lotzen ei zaie; kitxuarenak, ordea, kategoria askotako osagaiei atxiki dakizkieke. Ikus:

- (5) Lezgian (de Haan, 2013)  
*Qe sobranie že-da-lda.*  
 Gaur bilera izan-GER-PART  
 'Gaur bilera bat omen dago'
- (6) Kitxua (Faller, 2002)  
 a. *Juan-chá vaca-ta-qa suwa-rqa-n.*  
 Juan-PART behi-AK-TOP ostu-LEH-3SG  
 'Behia, Juanek<sub>[konj]</sub> ostuko zuen' (Faller, 2002, 181. or.)  
 b. *Suqta chunka wata-yuq ka-sha-n-chá.*  
 sei hamar urte-GEN izan-PROG-3SG-PART  
 'Hirurogei urte edukiko ahal ditu' (Faller, 2002, 172. or.)

Datu horiek aintzat hartuta, honako ondoriozta liteke Zwickyren eta Pullumen (apud Tan, 2019, 100. or.) hizkien eta klitikoek arteko bereizketari jarraituz: lezgian hizkuntzaren markatzaileak hizkiak lirerateke, beti kategoria bereko osagaiekin bat egiten baitute (Haspelmath apud Greed, 2017, 23. or.); kitxuarenak, berriz, klitikotzat hartu behar genituzke, berauek ez baitute hain zorrotz jokutzen helburuko oinarriaren kategoria aukeratzeko orduan.

Aditzarekin bat egitea ez da harritzekoa, proposizio osoa besarkatu ohi baitu markatzaile horien ekarpenak; horixe litzateke jokabide oinarrizkoa. Horrez gain, hizkuntza gutxiagotan bat egiten dute beste osagai batzuekin eta markatzaileen ekarpena osagai horretara soilik mugatzen da; hurrengo adibidean ikus daitekeenez, *mú* partikula *Mekako tximeletari* sintagmari eransten zaio:

- (7) Maaka (Aikhenvald, 2015, 250. or.)  
*Móy [pə̀rpér ním mákkà]<sub>is</sub>-mú.*  
 ikusi.AGIN tximeleta ERL Meka-PART  
 'Begira Mekako tximeletari MÚ!'

Beste hizkuntza batzuetan, ordea, markatzaileek beti gune sintaktiko bera okupatzen dute, Waldiek (2012, 26. or.) nuu-chah-nulth hizkuntzarako edo Biezmak eta bestek (2018) banglerazko *kya* partikularako proposatzen duten bezala; alabaina, inguruko osagaien izaera klitikoarengatik edo informazio egiturek eragindako mugimenduengatik osagai desberdinei erants dakizkieke direlako klitikoak. Lehenengo egoera alemanean

17 Egia esan, osagairik osagai ere izan daiteke aldakorra hizkuntza bateko hizki guztiek ez baitute kategoria bera aukeratzeko.

ikusten dugu: hizkuntza honek hitz-ordena zurruna dauka eta, ondorioz, gehienetan markatzaileen testuingurua egonkorra izaten da, aditz jokatuaren ondoren agertzen dira alegia; hala ere, kasu bakan batzuetan aditzaren eta markatzaileen artean izenordain ahulak azaltzen dira. Groszek (2005, 19.-20. or.) erakusten du Vienako alemanezko *-dn* partikulak normalean aditz jokatuarekin bat egiten duela, baina, izenordain ahulik egonez gero, berarekin egiten duela bat<sup>18</sup>. Bigarren egoera bangleraren moduko hizkuntzetan lekukotzen da: horrelakoetan markatzaileak ere kokapen finkoa dauka; dena den, informazio egiturak eragindako mugiden ondorioz markatzailearen testuinguru sintaktikoa alda daiteke. Horregatik adberbioei, izenei, aditzei eta abarri atxiki dakizkieke, markatzailearen testuingurura zer mugitu den aintzat hartuta. Kasurako:

- (8) Vienako alemanezko adibidea *-dn* partikulaz (Grosz, 2005)
- a. *Was macht-a-dn da?*  
zer egin-berak.MASK-PART hor?  
'Zertan dabil hor?' (Grosz, 2005, 18. or.)
- b. *Wann ham sie-dn den OTTO gefunden?*  
noiz LAG haiiek-PART ART.AK Otto topatu?  
'Noiz topatu zuten Otto?' (Grosz, 2005, 22. or.)
- (9) Banglera (Biezma eta beste, 2018)
- a. *jon=ne amra=ko kya khilona diya?*  
jon=ERG Amra=DAT PART jostailu.MASK.SG.NOM eman.PERF.MASK.SG  
'Amrari eman dio Jonek jostailua?'
- b. *jon=ne kya amra=ko khilona diya?*  
jon=ERG PART Amra=DAT jostailu.MASK.SG.NOM eman.PERF.MASK.SG  
'Jonek eman dio Amrari jostailua?'

Adibide hauetan ikusten da, batetik *-dn* partikula aditzari (8a) ez ezik, izenordain bati (8b) atxiki dakioke eta, bestetik, *kya* partikulak fokua den osagaiarekin bat egiten duela kategoria edozein dela ere.

Egoera bestelakoa da hizkuntza erromantzeetako partikula modal batzuen kasuan (Coniglio & Zegrean, 2012; Hack, 2014; Munaro & Poletto, 2002). Hauek ez dute ezerekin bat egin behar euren erabilera gramatikala izateko. Egia esan, aipatutako gramatika-lanetan propietate hori zuzenean aztertzen ez bada ere, partikula horiez egindako deskribapenetatik ondoriozta daiteke ez zaiola beste ezeri atxikitzen; izan ere, italierazko partikulen kasuan Munarok eta Polettok (2002) komen artean idazten dituzte, nahiz eta argudiatzen duten ez direla parentetikoak<sup>19</sup>. Halaber, partikula

18 Hizkuntza germanikoetan eta, gehienbat, alemanean esan ohi da partikula modalak klitikoak direla (Bayer & Obenauer, 2011). Dena den, ez datoz guztiak bat: Groszi (2005) edo Cardinalettiri (2011) jarraituz gero, babariatzko *-n* eta Vienako *-dn* bakarrik jo beharko lirateke klitikotzat; Bayerrek eta Obenauerrek (2011), ordea, guztiak sartzen dituzte multzo horretan. Edozein kasutan ez dira hizkiak.

19 Hainbat jokabidek ezaugarritzen dituzte modalitate-markatzaileak diren parentetikoak. Dehék (apud Van Bogaert & Leuschner, 2015, 100. or.) dio esaldi nagusitik bereizten direla beste maila prosodiko batean ahoskatzen direlako. Horrez gain, sintaxiak ere iradoki dezake osagai bat esaldian txertatuta dagoen ala ez, esate baterako, delako V2 efektuari begira. Ikus Dehék eta Kavalova (2007) gai horretan sakontzeko.

horiek *nz*-hitzekin batera agertzen dira, *deabru*, *demontre* bezalako izenen ildotik<sup>20</sup>. Ikus ditzagun hurrengo adibideak:

- (10) a. Italiara, Pagotto (Munaro & Poletto, 2002, 90. or.)

*Quando, po, eli rivadi?*

noiz PART LAG heldu

'Noiz heldu dira PO?'

- b. Dolomietako ladinera (Hack, 2014, 61. or.)

*Olà pa le à magnà angérm?*

non PART eurak LAG jan atzo

'Non debru jan zuten atzo?'

Laburbilduz, modalitate-markatzaileak hiru izaera morfosintaktikoren arabera sailka daitezke: hizkiak, klitikoak (hauek biak *enklitiko* terminoaren barruan biltzen dira) eta partikulak (esan bezala, azken hau osagai beregainak izendatzeko erabiltzen da lan honetan). Lehenengoek beti egiten dute bat kategoría jakin bateko beste osagai batekin; eragiketa hau morfosintaxian kokatuko litzateke. Bigarrenek ere beste osagai batekin egiten dute bat, baina horrelakoetan helburuko osagaiaren kategoría aldakorra izan daiteke; prosodiak eragingo luke hori. Azkenengoak ez zaizkio beste ezeri gehitzen eta beregainak dira markatzaile horiek.

## 2.2. Mendeko testuinguruetan txertagarritasuna

Tan eta Mursellek (2018) tagalozko *yata* eta alemanezko *wohl* partikulak aztertzeke bi propietateri begiratzen diete: a) ea partikulen ekarpena ezeztatu daitekeen eta b) ea mendeko testuinguruetan ager daitezkeen. Autore horiek aitortzen duten bezala, ebidentzial (eta epistemiko) modalak eta Hizketa-ekintzaren Operatzaileak bereizten laguntzen duten test gehiago daude; hala ere, ezaugarri sintaktikoetara mugatzen gara artikulua honetan eta, beraz, mendeko perpausetan txertatzeko gaia aurkeztuko dut jarraian.

Tradizio germanikoan esaten da partikula modalak ezin direla mendeko testuinguruetan erabili indar ilokutiboari eragitea baita euren funtzio nagusia<sup>21</sup>. Hala ere, egoera konplexuagoa da hainbat mendekotan azaltzen baitira; esate baterako:

20 Hizkuntzarik hizkuntza izenak aldatzen badira ere, madarikazioekin lotura duten hainbat izenek *nz*-hitzekin bat egiteko joera dago; esaterako: ing. *where the hell*, gazt. *dónde diablos*, eus. *non demontre*, fr. *où diable*.

21 Korotkovak (2021) propietate horren ikuspuntutik ebidentzialak aztertzen ditu tipologikoki ez baitute antzera jokatzeko; hots, hizkuntza batzuetan mendeko testuinguruetan ager daitezke, beste batzuetan, berriaz, ez. Bere iritziz murriztapen hori ez dago ebidentzialekin lotuta, mendeko perpausak sortzeko sintaxiarekin baizik. Ebidentzialak mendeko perpausetan onartzen ez dituzten hizkuntzetan jokatu gabeak izaten dira testuinguru horiek; esate baterako, kitxuazko mendeko perpausak jokatu gabeak dira eta, beraz, *-si* bezalako markatzaile bat ezin da perpaus osagarri batean erabili berorren sintaxiak ez duelako ahalbidetzen.

- (11) Alemana (Métrich eta beste apud Coniglio, 2007, 115. or.)
- a. *Mir fällt gerade ein, daß Hans ja längst hier sein müßte.*  
 ni.DAT erori oraintxe APART MEND Hans PART luze hemen egon behar  
 'Gogoratu berri dut Hans aspaldi etorri behar zela'
- b. *Das bedeutet, daß sie dir wohl kaum nach Rom folgen wird [...]*  
 hori esan.nahi MEND bera zu.DAT PART nekez ADL Erroma jarraitu GER  
 'Horrek esan nahi du nekez jarraituko dizula Erromara'

Conigliok (2007) partikula modalek mendeko perpausetan duten jokabidea aztertu ondoren ondorioztatzen duen moduan, partikula modalak ezin dira perpaus nagusien propietateak ez dituzten testuinguruetan agertu; hots, ezin dira erlatiboetako perpaus murriztuetan, denbora- eta toki-perpausetan, erdiko baldintzetan (ing. *central conditional clauses*) eta aditz faktiboen mendean erabili:

- (12) Alemana
- a. *Eine Kollegin, die (\*ja) in Syracuse wohnt, wird kommen.*  
 bat kide.FEM MEND.NOM.FEM PART in Sirakusa bizi GER etorri  
 'Sirakusan bizi den kide bat etorriko da' (Kratzer apud Coniglio, 2007, 130. or.)
- b. *Während der Feind (\*wohl) näher rückte, sprengten sie*  
 bitartean ART.NOM.MASK arerio PART hurbilago mugitu jauzi.egin bera  
*die Brücke.*  
 ART.AK.FEM zubi  
 'Etsaia hurbiltzen ari zen bitartean, zubia lehertu zuten' (Coniglio, 2007, 128. or.)
- c. *Es stimmt, daß Udo (\*ja) verheiratet ist.*  
 bera egia.izan MEND Udo PART ezkondu LAG  
 'Egia da Udo ezkondata dagoela' (Jacobs apud Coniglio, 2007, 117. or.)

Mendeko perpaus horiei begiratzen diete Tanek eta Mursellek (2018) eta agerian uzten dute tagalozko *yatak* eta alemanezko *wohle* desberdin jokatzeko dutela alderdi honi dagokionez: lehenengoa ez bezala, bigarrena ezin da perpaus mota horietan agertu. Ilustra dezagun hurrengo adibideen bitartez:

- (13) Alemana
- Die Deutschen, die wohl viel Bier trinken, gucken gerne*  
 ART.nom.PL alemanak MEND.NOM.PL PART asko garagardo edan ikusi pozik  
*Fussball.*  
 futbol  
 (Irakurketa egokia:) 'Alemanek, zeinei normalean WOHL garagardo asko edatea gustuzen baitzaie, gustura ikusten dute futbola'<sup>22</sup>  
 (Irakurketa desegokia:) 'Normalean WOHL garagardo asko edatea gustuzen zaien alemanek gustura ikusten dute futbola'<sup>23</sup>

22 Ingelesezkotako bertsioa: 'The Germans, who (generally) like to drink much beer (I infer), like to watch football'.

23 Ingelesezkotako bertsioa: 'Those Germans who like to drink much beer (I infer) like to watch football'.

(14) Tagaloa

- a. *Naiwan ko sa bahay ang susi na nakakabukas yata ng garahe.*  
 utzi ni IN etxe NOM giltz hori ahal.ireki PART GEN garage  
 'Garajea YATA ireki dezakeen giltza etxean utzi nuen'<sup>24</sup>
- b. *Kinain ni Juan ang mamon, na ginawa yata ni lola.*  
 jan GEN.PERTS Juan NOM mamon MEND egin PART GEN.PERTS amama  
 'Jonek jan zuen madalena, zeina amamak YATA egin baitzuen'<sup>25</sup>

Tagalozko *yata* eta alemanezko *wohle*k indar ilokutiborik gabeko mendeko perpausetan agertzeko jokabide diferente hori izaera desberdina edukitzeari leporatzen diote: *yata* ebidentzial modala da eta *wohl*, ordea, hizketa-ekintzaren operatzaile bat.

Bestalde, ebidentzial-epistemiko modalak eta hizketa-ekintzaren operatzaileak ez daitoz bat ezaugarri horretan lehenengoek proposizio-mailan jokatzeko dutelako eta bigarrenak, berriz, hizketa-ekintza mailan. Perpaus mota jakin batzuen sintaxiak, beraz, baldintza dezake eurak agertzea. Conigliok (2007) proposatzen duen bezala, Hizketa-ekintza Sintagma ez da proiektatzen erlatiboazko perpaus murriztuetan, denbora- eta toki-perpausetan, erdiko baldintzetan eta aditz faktiboen mendean dauden perpausetan; horrenbestez, *wohl*, *denn*, edo *bloß* bezalako partikulak perpaus nagusi edo Hizketa-ekintza Sintagma duten mendekoetara mugatzen dira, besteetan ezin baitute euren funtzioa bete. Aldiz, hipotesi horren ildotik, *kaya* edo *yata* ebidentzial-epistemiko modalek ez dute inongo arazorik horrelako testuinguruetan azaltzeko, Hizketa-ekintza Sintagmarik ez dagoen arren, ez baitute behar.

Ondorioz, modalitate-markatzaile guztiak ezin dira mendeko testuinguru guztietan azaldu eta horrek bi taldetan banatzea ahalbidetzen du indar ilokutiboaren behararen arabera. Banaketa hori beste ezaugarri semantiko batzuek indartzen dute; hala ere, syntaxira mugatuko naiz oraingoz. Hurrengo atalean euskarara itzuli eta hizkuntza horretarako modalitate-markatzaileak aztertuko ditut orain jorratutako ezaugarrien arabera.

### 3. EUSKARAZKO TRADIZIOKO PARTIKULA MODALAK

Etiketa horretan sartzen direnak honakoak dira: *ahal*, *al*, *bide*, *ei*, *omen* eta *ote*. Modalitate-markatzaile horiek Euskaltzaindiak (1987) zerrendatu zituen lehenengo aldiz multzo berean, *aditz multzoari erantsitako bestelako osagaien* artean alegia; aurreko lanetan edo osagai gehiago gehituak zituzten e.g. *bait*, *berri*, *edo*, *gogo*, *hurran* (de Rijk, 1969; Eguzkitza, 1991; Wilbur, 1981) edo talde gehiagotan banatuta aurkezten zituzten (cf. Lafitte, 1944; Larramendi, 1729). Bestalde, Eguzkitzak (1985) erabiltzen du antza lehen aldiz *partikula modal* terminoa horiek taldekatzeko eta seguru asko

24 Ingelesezko bertsioa: 'I left at home the key that (I infer) can open the garage'.

25 Ingelesezko bertsioa: 'Juan ate the muffin, which (I infer) grandma made'.

tradizio germanikotik mailegatu zuen hizkuntza horren partikula modalek eta orain zerrendatutako euskarazko markatzaileek antzera jokaten baitute interpretazioaren aldetik. Oraingoan modalitate-markatzaile horiek ikertuko ditut 2. atalean jorratutako irizpideen arabera.

### 3.1. Tradizioko partikula modalak hizkiak dira

Lehenengo propietatean hiru multzotan banatu ditut delako markatzaileak euren izaera morfosintaktikoa aintzat hartuta: a) hizkiak, b) klitikoak eta c) partikulak. Orain aztertuko ditugun horiez gain, euskarak badu modalitate epistemikoa markatzeko beste bide bat, aditz jokatuan txertatzen den *-ke-* morfema alegia; dena den, aditz-morfologia artikulua honen ikergaitik kanpo dago eta, beraz, albo batera utziko dugu. Euskal gramatiketan markatzaile hauek sintaktikoki deskribatuak izan direnean aipatua izan da aditz jokatuarekin bat egiten dutela (Albizu, 1991; Arregi & Nevins, 2012; Elordieta, 1997; Elordieta, 2001; Monforte, 2020c, 2020d); ezezko perpausetan eta ekialdeko hizkeretako egitura fokal exhaustiboek ematen dute jokabide horren berri, aurrerago erakutsiko dudan legez.

Ezaguna da (Altube, 1930, 65.-66. or.; Arrigarai, 1919, 237. or.; Campión, 1884, 760. or.; Chaho, 1836; Euskaltzaindia, 1987, 485. or.; Gèze, 1873, 241. or.; Hualde & Ortiz de Urbina, 2003, 316. or.; Larramendi, 1729, 309. or.; Urquizu, 1996, 231. or.) markatzaile hauek aditz lexikoaren eta jokatuaren artean agertzen direla perpaus deklaratiibo neutroetan eta horietako bat bakarrik ager daitekeela perpaus bakoitzean (Monforte, 2020c):

(15) Aitor liburutegira joaten ei da. vs. \*Aitor liburutegira joaten ei ote / ote ei da.

Izan ere, aditz lexikoa eta laguntzailea<sup>26</sup> beti elkarren ondoan egon behar dira horrelako testuinguruetan; hots, ezin da ezer tartekatua, modalitate-markatzaile hauek salbu:

(16) Aitor liburutegira joaten (\*egunero) da.

Aurreko perpausaren (15) osagai banaketari begiraturaz gero, aspektuaren eta aditz jokatuaren artean agertzen da partikula:

(17) [<sub>DenbS</sub> Aitor [<sub>Denb'</sub> [<sub>PartS</sub> [<sub>AspS</sub> [<sub>AS</sub> liburutegira joa(n)] [<sub>Asp</sub> -ten]] [<sub>Part</sub> ei]] [<sub>Denb</sub> da]].

26 Aditz laguntzaileak beti agertzen dira aditz lexiko batekin batera. Aditz laguntzaile guztiak jokatuak dira, baina jokatu guztiak ez dira laguntzaileak, aditz sintetikoak ere jokatuaren artean sartzen direlako. Lan honetan termino horiek honela erabili ditut: a) *aditz jokatu* terminoa baliatu dut aditz laguntzaile nahiz sintetikoek eragiten dieten ezaugarriak jorratzen ditudanean; b) aditz laguntzaileek soilik duten propietate bat aztertzean termino hori hobetsi dut sintetikoetatik desberdintzeko; eta, c) era berean, aditz sintetikoek bakarrik duten jokabide bat lantzean termino hori erabili dut aditz laguntzaileekin ez nahasteko.



Aditz lexikoaren eta laguntzailearen arteko eremu horretan azal daitezkeen beste osagai batzuk aditz modalak dira. Hala ere, modalitate-markatzaileek ez bezala, aditz modalek geroaldiko markak har ditzakete modu mugatuan behintzat:

- (18) a. Aitor liburutegira joan beharko da.  
b. \*Aitor liburutegira joan (\*ei)ko / (\*omen)go da.

Beraz, *ahal*, *al*, *bide*, *ei*, *omen* eta *otek* kokagune finkoa okupatzen dute egitura sintaktikoan; hala ere, euskara ez da hizkuntza zurruna eta informazio egituraren arabera SOA hitz-ordena alda daiteke. Bestelako hurrenkeraren duten testuinguru batzuk galderak, ezezko perpausak eta foku-egiturazkoak dira; esate baterako:

- (19) a. Aitor ez da liburutegira joaten ~~ez~~ da.  
b. AITOR joaten da Aitor liburutegira joaten ~~da~~.

Horrelako batzuetan (ezezkoetan eta ekialdeko foku exhaustiboetan (Duguine & Irurtzun, 2008) aditz jokaturik soilik ezkerrean mugitzen da; berauek interes handikoak dira erakusten baitute modalitate-markatzaile hauek zelan jokatu duten.

- (20) a. AITOR da liburutegira joaten.  
b. AITOR omen da liburutegira joaten ~~omen~~ da.

Ikus daitekeenez, *omen* markatzailea eta *da* aditz jokaturik elkarrekin mugitzen dira fokuari ondoan kokatzeko.

Markatzaile hauek aditz jokatuaren agerpenaren mende daude; alegia, aditz jokaturik morfonologikoki gauzatzen ez bada, modalitate-markatzaileak ezin dira azaldu:

- (21) a. Hori erosi (\*omen) eta bertzea aurtiki omen du Maitenak.  
b. Ez dakit nora joan (\*ote).

Ohar bedi irakurlea testuinguru hauetan partikula ez agertzeko murriztapena sintaxiarekin lotuta dagoela eta ez pragmatikarekin; aditz jokaturik gauzatuz gero, markatzaileak zilegi dira aurreko perpausetan<sup>27</sup>:

- (22) a. Hori erosi omen du eta bertzea aurtiki omen du Maitenak. (cf. 21a)  
b. Ez dakit nora joango ote naizen. (cf. 21b)

27 Berrikusle batek honako datu interesgarria ekarri dit: pragmatikoki markatuak diren testuinguru batzuetan aditz jokaturik isil daiteke baina aditz nagusiak aspektu marka galdu gabe; horrelako kasuetan ere ez da zilegi tradizioko partikula modalak erabiltzea. Esate baterako:

(i) Aita bere zain ei zegoen etxean baina Miren etortzen ez (\*ei).

Halaber, direlako markatzaile horien eta aditz jokatuaren arteko harremanaren beste froga bat honako testuinguruetan aurkitzen dugu: aditz laguntzaileak eta sintetikoak perpausaren lehenengo posizioan agertzeko murriztapenean. Berez ezin dira posizio horretan azaldu:

- (23) a. \*Dute Algortako metro geltokia suntsitu ~~dute~~.  
 b. \*Dakit zer gertatu den Algortan ~~dakit~~<sup>28</sup>.

Ezgramatikaltasun hori konpontzeko bide desberdinak ditu aditz mota bakoitzak. Perifrastikoen kasuan aditz lexikoa aurreratzen da (cf. Elordieta & Haddican, 2016). Aditz trinkoen kasuan, aditz lexikoa jokatuaren barruan inkorporatuta dagoenez, euskarak darabilen baliabidea morfema espletiboa gehitzea da, i.e. *ba-* aurrizkia erantsiz (Ortiz de Urbina, 1993, 753. or.):

- (24) a. Suntsitu dute Algortako metro geltokia ~~suntsitu dute~~.  
 b. Badakit zer gertatu den Algortan ~~dakit~~.

Adibide horiek (23a & b) ohiko partikula modalen bat edukiko balute, aditz jokatuarekin batera mugituko lirateke eta, berauek aurrizkiak direnez, aditz jokatuak ez litzateke lehenengo posizioan agertuko. Dena dela, perpausak ezgramatikalak izaten jarraitzen dute:

- (25) a. \*Omen dute Algortako metro geltokia suntsitu ~~omen dute~~.  
 b. \*Ahal dakit zer gertatu den Algortan ~~ahal dakit~~.

Aurreko testuinguru ez-gramatikalak ohiko partikula modalek konpon ditzaketela dirudien arren, ez da horrela gertatzen; honek aditzera ematen du aditz jokatuak eta partikulek bat egiten dutela eta sintaktikoki osagai bat bakarrik izango balira bezala jokatuak dutela (Albizu, 1991; Elordieta, 1997; Monforte, 2020d; besteak beste). Arestian (24a & b) aplikatutako konponbideak gramatikal bihurtzen ditu perpaus hauek:

- (26) a. Suntsitu omen dute Algortako metro geltokia ~~suntsitu omen dute~~.  
 b. Ba ahal dakit zer gertatu den Algortan ~~ahal dakit~~.

Azkenik, testuinguru biri erreparatu nahi nieke, *nz*-galderei eta egitura fokalei alegia, ikergai ditudan modalitate-markatzaile hauek aditz jokatuaren aurretik agertzen diren osagai beregainak ez direla frogatzeko beste ebidentzia bat baitakarkigute. *Nz*-hitza den edo fokua jasotzen duen sintagma eta aditz jokatuak elkarren ondoan agertu behar dira, euren artean besterik agertu ezinik (cf. Duguine & Irurtzun, 2014):

28 Berrikusle batek ohartarazten duen bezala, okertzat jotzen diren forma horiek ez dira beti okerrak. Egia esan, oso gai interesgarria da eta gehiago ikertu behar litzateke. Dena den, iruditzen zait aditz sintetiko jakin batzuek bakarrik ote daukaten jokabide hori eta testuinguru pragmatiko jakin batzuetan (adibidez, *da / dago, daukat / dut, naiz / nago...*).

- (27) a. Non dago orain Leire? / \*Non orain dago Leire?  
 b. FINLANDIAN dago orain Leire? / \*FINLANDIAN orain dago Leire?

Nahitaezko ondokotasun honetan salbuespen bat dago: atal honetan aztergai ditudan modalitate-markatzaileak. Hauek *nz*-hitzaren edo fokuaeren eta aditz sintetikoaren artean ager daitezke:

- (28) a. Non ote dago orain Leire?  
 b. FINLANDIAN ote dago orain Leire?

Aurretik (§ 2) aipatu dut hainbat hizkuntzaren gramatiketan zaila da ebaztea ea modalitate-markatzaileak enklitikoak edo hitz beregainak diren, hizkuntza idatziak iruzurra egin dezake eta. Izan ere, euskaraz iruzur egiten digu berezita idazten direlako markatzaileak eta aditz jokatuak; hala ere, jokabide sintaktiko horiek salatzen dute bat egiten dutela. Are gehiago, hainbat bilakabide morfonologikok ere frogatzen dute, hala nola (29a-b) adibideetako ozenen fortitioak (de Rijk, 2008) edo (29c-f) adibideetako bokal igoera eta asimilazioak (Elordieta, 1997), besteak beste. Ikus ditzagun adibideak:

- (29) a. Ondo altzabe? [*al zabe* > *altzabe*]  
 b. Ea Kanillo arrantzalea nun bizi zan galdetu omentzon. [*omen zon* > *omentzon*] (Barandiaran, 1972)  
 c. Āpurtu eižeban. [*ei eban* > *eižeban*] (Elordieta, 1997, 129. or.)  
 d. Txakurra, honek ekarri eiban. [*ei eban* > *eiban*] (Monforte, 2015, 65. or.)  
 e. Juez soberanuec berac acuseuco eitus. [*ei ditu(e)s* > \**eittu(e)s* > *eitu(e)s*] (Ullbarri, 2015, 194. or., 394. or.)  
 f. Etortzen oti aa? [*ote da* > *ote aa* > *oti aa*] (Navarro eta beste, 2008, 391. or.)

Bestalde, modalitate-markatzaile hauek aditz lexikoarekin eta jokatuarekin unitate prosodikoak osatzen dituzte, edo aditz trinkoen kasuan aditz jokatuarekin (eta polaritatezko morfemekin, egonez gero) (Elordieta, 1997, 183. or.; Txillardeggi, 1984, 411. or.); galdera da ea berez azentudunak ote diren ala ez. Galdera hau erantzutea zaila da, partikulak beti aditz jokatuarekin batera agertzen baitira, eta beraz ezin da jakin azentua berezkoa den ala aditz jokatuarekin bat egitean prosodia patroia hartzen duen, berez hitz prosodikoa osatzen ez duten hitzek, enklitiko batekin bat egitean, sortzen dutelako hipotesiaren ildotik (Condoravdi & Kiparsky, 2002, 9. or.)<sup>29</sup>. Aurreko ebidentziak aintzat hartuta, azkenaren alde egingo dut; izan ere, aditz jokatuaren tamainaren arabera markatzaile hauek azentua jasotzen duten edo ez duten jasotzen; edo hizkeraren patroia sistemaren arabera lehenengo edo bigarren

29 Condoravdi eta Kiparskyk (2002, 9. or.) grezierazko partikula modalen eta aditzaren aurreko klitikoaren kasua dakarte, biek ez baitute euren horretan hitz prosodikorik eratzen; biek bat egiten badute, ordea, osatu egiten dute:

(i) na *ítose koundá m, to gaidúr ná to pjásoum ton* [...]
 P zinen gertu ni ART asto P KL hartu.1PL ziren
 ‘Nire ondoan egon bazina, astoa harrapatuko genuen’

silaban jaso dezakete azentua. Ikus dezagun Lekeitioko euskarak eskaintzen digun ebidentzia:

(30) Jonek liburu'a erosi ei' dau. (Elordieta, 1997, 103. or.)

Aditz jokatuak silaba bakarra daukanez, *eik* jasotzen du azentua; aditz jokatua silaba bikoaren denean, aldiz, partikulak ez du azenturik jasotzen du<sup>30</sup>:

(31) Apurtu ei že'ban. (Elordieta, 1997, 129. or.)

Ondorioz, *ahal*, *al*, *bide*, *ei*, *omen* eta *ote* modalitate-markatzaileak hizkiak dira 2. atalean jorratutako irizpideren arabera a) beti beste osagai bati atxikitzen baitzaizkio, b) osagai horiek kategoria berekoak baitira eta c) mugida sintaktikoen mugiarazten baitituzte.

### 3.2. Tradizioko partikulak ebidentzial-epistemiko modalak dira

Aurretik (§ 2.2.) bitan bereizi ditugu modalitate-markatzaileak mendeko testuinguruetan txertatzeko aukera duten ala ez aintzat hartuta: batetik, ebidentzial-epistemiko modalak eta, bestetik, hizketa-ekintzaren operatzaileak. Euskaraz atal honetan aztergai diren modalitate-markatzaileak mendeko perpausetan azal daitezke hurrengo adibideetan ikus dezakegun legez:

- (32) a. Nafarroako lekuizen kontuetan aditua den Mikel Belasko jaunak esan dit, eskuizkribu zaharretan behin eta berriz ageri omen dela Arrias-Oranza hori, han eta hemen [...]. (Perurena, 2004, 161. or.)  
 b. Etorri al den galdezka ari da.

Gauzak horrela, pentsa liteke hauek ez direla hizketa-ekintzaren operatzaileak, mendeko testuinguruetan azaltzeko gaitasuna baitaukate. Hala ere, gogoan eduki dezagun azken horiek ere mendeko perpaus mota jakin batzuetan erabil daitezkeela (Coniglio, 2007; Tan & Mursell, 2018); alemanezko partikula modalak soilik erlatiboetako perpaus murriztuetan, denbora- eta toki-perpausetan eta baldintza mota batean eta aditz faktiboan mendean badaude, agramatikala da euren erabilera. Errepara diezaiozun orain euskarazko markatzaile horiek testuinguru murriztaile horietan duten jokabideari. Bi

30 Antzeko iritzikoa da Altube (1930); berak dio aditz trinkoen patroia prosodikoa aldatzen dela modalitate-markatzaile hauekin bat egitean. Beraz, aditz sintetikoen lehenengo silaban jasotzen duten azentua modalitate-markatzaile hauek pasatzen dela:

- (i) a. dátor > éi-dator  
 b. dátor > ál-dator  
 c. dátor > bidé-dator  
 d. dátor > omén-dator  
 e. dátor > oté-dator

Data hauek kontuz aintzat hartu beharko lirake, patroia prosodikoa aldatzeko delako ematen baitu. Dena den, aditz jokatuak eta partikulak arteko bat egiteak prosodian eragina duela erakusten du zalantzarik gabe.

testuingurutara mugatuko naiz: erlatiboazko perpausetara eta denborazko perpausetara<sup>31</sup>. Bai lehenengoetan, bai bigarrenetan ager daitezke ikergaiko markatzaile guztiak, *al* izan ezik. Ikus ditzagun hurrengo adibideak:

- (33) a. Errusiar batekin ezkondu omen zen neskak ihes egin du.  
 b. Baina, denak harrituta gelditu ziren, odolaren ordeaz esne garbia atera omen zenean zainetatik kanpora. (Zabala, 2000, 295. or.)  
 c. Gaixo neskak, ustez untsa egiten zuela, ura ixuri baitu olioaren gainerat, sekulan ez omen delarik hori behar! (Sinadurarik gabe, 2005, 3. or.)

Horrenbestez, *ahal*, *bide*, *ei*, *omen* eta *otek* ez dute inongo arazorik horrelako testuinguruetan agertzeko, alemanezko partikula modalek ez bezala, baina tagalozko ebidentzial modalek bezala. Horrek iradokitzen du partikula horiek behintzat ebidentzial-epistemiko modalizat jo beharko lirateke euskalaritzan ez baitote nahitaez hizketa-ekintzari eragin behar (Korta & Zubeldia, 2016; Monforte, 2021)<sup>32</sup>.

Bestalde, *al* galdera markatzailetzat hartu izan da gramatika-lanetan (de Rijk, 2008, 163. or.; Euskaltzaindia, 1987, 512. or.; Mitxelena & Sarasola, 2017)<sup>33</sup>; beraz, ez da harritzekoa berau hizketa-ekintzaren operatzailea izatea. Horrela frogatzen dute datuek, zehar galderetan erabil daitezkeen arren, ezin baita *galdetu* aditzekin lotuta dagoen izen baten osagarri perpausetan agertu:

- (34) Etorriko (\**al*) den galdera ez zaio gustatu. (Monforte, 2020c)

Gainerako markatzaileek, ordea, ez daukate murriztapen hori:

- (35) Etorriko ote den galdera ez zaio gustatu.

Amaitzeko, (3.1) eta (3.2) euskalaritzan partikula modalizat jo izan diren modalitate-markatzaileen hainbat ezaugarriari begiratuta ondorioztatu dut, bateko, hizkiak direla (tradizio germanikoko partikula modalak ez bezala) eta, besteko, ebidentzial-epistemiko modalak direla guztiak, *al* izan ezik, azken horrek hizketa-ekintzaren operatzaileen murriztapenak baititu.

31 Testuinguru horiek aukeratu ditut besteek erabilera murriztaileagoa baitaukate euskaraz eta horrek baldintza lezake analisia.

32 Horrek esan nahi du *ote* bezalako partikula batek hizketa-ekintzari eragin diezaiokeela, adibidez, galdera operatzaile baten mendean eta, ondorioz, galdera neutro bat konjektural bihurtu dezakeela (Monforte, 2021).

33 Lan hauetan, egia esan, ez da *galdera partikula* edo *markatzaile* terminoa erabiltzen; hala ere, eskaintako deskribapenetatik (perpausak polaritatezko galderatzat markatzeko balio du eta ez du ekarpen interpretatiborik gehitzen) ondoriozta daitezkeela horrela jotzen dutela.

#### 4. PARTIKULA MODALEN TALDEA BERREGITURATZEN

Euskaltzaindiak (1987) batera taldekatzen dituen modalitate-markatzaileak aztertuta, interpretazioaren aldetik multzo berean sar litezkeen beste markatzaileei erreparatuko diet jarraian (*antza, bada, baina, berriz, gero, ordea* eta ekialdeko hizkeretan jokabide bereizia duen *ote*), kasu honetan ere 2. ataleko irizpideak aintzat hartuta.

##### 4.1. Modalitate-markatzaileak: partikula modalen izaera argira

Aurretik aztertutako modalitate-markatzaileekin erkatuz gero, hainbat dira 3. ataleko eta honetako osagaien arteko desberdintasunak. Lehenengo banaketa osagarriarekin dago lotuta: aurrekoen kasuan perpaus bakoitzean osagai bakarra ager daiteke; atal honetako kasuan, ordea, gutxienez bi erabil daitezke (*bada gero, bada ote*); esaterako:

- (36) a. A, ez, ez, ez, ez, ez, ez, betharte kozkorrak, ta ezpañak handio ta, agei düzü ba gio [= *bada gero*] [...] (Camino, 2017, 767. or.)  
 b. Nor deitzen du bada ote Peiok egun guziz hain goizik? (Monforte, 2020c)  
 c. Zer bada ote? (Landart, 1978, 45. or.)

Markatzaile horiek perpausean zehar duten banaketa da bigarren desberdintasuna. Begira diezaiogun hurrengo adibideari hori irudikatzeko:

- (37) (\*gero) Hori (\*gero) azkar (\*gero) etorri (\*gero) da (gero)!

Ikus daitekeenez, markatzaile hauek ezin dira aurrekoen kokapenean azaldu. Aurreko adibideei (36a, b eta c) erreparatuz gero, ematen du malguagoak direla kokaguneari dagokionez, aurrekoak ez bezala. Dena den, gogoan eduki dezagun euskararen hitz-ordena ez dela zurruna eta informazio egiturek eraldatzen dutela. Har dezagun eremu sintaktikoak (ezker eremua eta erdiko eremua) agerian uzten dituzten bi testuinguru: galderak eta ezezko perpausak. Jakina denez, egitura horietan guztietan aditz jokatu aurreratzen da, eta ezeztapenetan aditz lexikoa *in situ* geratzen da. Testuinguru horiek, beraz, argitzen lagun diezagukete ea markatzaile hauek mugitzen diren ala ez; bestela esanda, ebidentzia ekar dezakete ea hizki, klitiko edo partikula legez jokatu duten. Ikus ditzagun hurrengo adibideak:

- (38) a. Ezün ordian hain khario, gio (= gero). (Camino, 2017, 673. or.)  
 b. Mikel ez da etorri bada? (Lizardi-Ituarte, 2020)  
 c. Gouyone zian izena, joan ztia'ma (= bada) hantik fite gio (= gero)! (Camino, 2017, 717. or.)

Ikus daitekeenez, aditz jokatuaren mugidak ez du nahitaez markatzailea ere aurreratzen; dena den, hainbat kasutan aditz jokatuaren ondoren ere ager daiteke; kasurako:

- (39) a. Kasu emazu gero zer erraiten duzun. (Larzabal, 1992, 30. or.)  
 b. Mikel ez da bada etorri?

Halaber, *ere* adberbioa eta *-ela* menderagailua tarteka daitezke aditz jokatuaren eta markatzailearen artean; beraz, ez du ematen markatzaile hauek eta aditz jokatuak morfologikoki bat egiten dutenik aurrekoen (§ 3.1.) moduan<sup>34</sup>:

- (40) a. Dendariain etxen iilten bigintzun e gio [= *ere gero*]. (Camino, 2017, 695. or.)  
 b. Oroit hadi, hemen Basabeltzean, nausi ni naukala gero... (Larzabal, 1992, 12. or.)

Ebidentzia horretatik ondoriozta dezakegu ez direla ez hizkiak, ez klitikoak, ez baitira beste osagai bati nahitaez lotzen, aurrekoak ez bezala.

Tradizioko partikula modalekiko hirugarren desberdintasuna perpaus jokatugabeetan ikusten dugu orain aztergai ditudan horiek horrelako testuinguruetan erabil baitaitezke. Beraz, aditz jokaturik gabeko perpausetan ager daitezke; are gehiago, *nz*-hitz edo fokua soilik agerian duten perpausetan ere azal daitezke:

- (41) a. Nora joan bada oporretan dirurik ez badago?  
 b. Gezurra gero!  
 c. Nork baina?  
 d. Zer gero? (Larzabal, 1992, 11. or.)

Horrek ere hizkiak ez direlako hipotesiaren alde egiten du, markatzaileak mota askotako osagaiekin batera ageri baitira.

Oraingo galdera da ea klitikoak ote diren. Aurretik azaldu bezala, klitikoek beste hitz batekin egiten dute bat baina eragiketa hori ez da morfosintaktikoa, prosodikoa baizik, kategoria desberdinetako osagaiei atxikitzen baitzaizkie. Orain aztergai ditugun markatzaileei begiraturuz gero, zaila da esatea klitiko legez jokutzen duten; egia da kategoria askotako hitzen ondoan ager daitezkeela eta batzuen kasuan *badaren* ondotik ere. Nire ustez, azken horrek iradokitzen du ez zaizkiola beste osagai bati atxikitzen, bestela, ulertu behar baikenuke (36b) bezalako perpausetan markatzaile bat (*bada*) aditzari eta bestea (*gero*) aurreko markatzaileari atxikitzen zaizkiela. Are gehiago, (38b) adibideak erakusten du, markatzaile bi egonez gero, ez direla elkarren ondoan agertu behar.

34 Esan bezala, ez, behintzat, morfosintaktikoki; Lizardi-Ituarte (2020) proposatzen duen bezala, aditz jokatuaren ondoren azaltzen direnean, klitiko legez jokutzen dute eta prosodikoki aditz jokatuari atxiki zaizkio. Hala ere, eragiketa prosodiko hori ezker periferiarako mugida sintaktikoa baino lehen gertatu beharko litzateke; hau ez bide da oso ohikoa. Modalitate-markatzaile hauek gune bat KonpSren eremuan okupatzea (*ote* ezohikorako Monfortek [2020c, 2020d] proposatzen duen bezala) eta informazio egiturak eragindako mugimenduen ondorioz banaketa desberdin horiek azalaraztea izan liteke beste azalbide bat.

Bestalde, patroi prosodikoa sakonago ikertu beharko balitz ere, honek iradokitzen du markatzaile hauek ez direla enklitikoak, beti gune berean jasotzen baitute azentua, aurreko markatzaileek ez bezala<sup>35</sup>:

- (42) a. Hori, azkar etorri da gero' (/ \*ge'ro)!<sup>36</sup>  
 b. Nun utzi dut othe' (/ \*o'the) kazeta? (Monforte, 2020d, 12. or.)  
 c. Zeinek esan du baina' (/ \*bai'na) hizkuntza horretaz bakarrik dela?

Ondorioz, ebidentzia horietan oinarrituta, *bada*, *baina*, *berriz*, *gero*, *ordea* eta ekialdeko hizkeretan jokabide bereizia duen *ote* partikulak direla proposatzen dut, ez baitzaizkio beste ezeri atxikitzen eta ez baitira prosodikoki ahulak. Egia esan, euren jokabideak hizkuntza germaniko batzuen eta hizkuntza erromantzeenak gogorarazten ditu<sup>37</sup>. Are gehiago, hizkuntza horietan bezala, markatzaile horietako bik gutxienez (*bada* eta *ote*) *nz*-hitzekin bat egin dezakete, ekialdeko hizkeretan behintzat:

- (43) a. Zerk bada bultzatzen nau honela ibiltzera bakarrik, beti bakarrik? (Aintziart, 2000, 108. or.)  
 b. Ez dakit nik nola ote egiten ahal zükean. (Camino, 2009, 193. or.)

Monfortek (2020b, 2020c) argudiatzen duen bezala, osagai beregainek bakarrik joka dezakete horrela, 3. ataleko markatzaileek ez bezala; izan ere, erabilera hori beste hitz batzuenarekin pareka liteke, hots *zer demontre*, *non debru* eta abar.

35 Egia da markatzaile horietako batek bilakabide morfonologikoak jasaten dituela, i.e. *bada*:

(i) Eztakipa! (= *ez dakit, bada*)

Horrek indar lezake markatzaile horiek klitikoak direlako hipotesia; dena den, ez dut uste ikuspegi hori zuzena denik antzeko egoera beste testuinguru batzuetan topa daiteke eta; esate baterako:

(ii) Behinik-behin > beinpein

Hala ere, baliteke *bada* markatzaileak desberdin jokatzea eta besteak baino gramatikalizatuago ego-tea, hots, morfonologikoki edo morfonosintaktikoki ahulagoa izatea. Ikerketa sakonagoa beharrezkoa da.

36 *Geroren* kasuan adberbio-irakurketatik bereizteko balio du prosodiak ematen baitu bigarren silaban jasotzen duela azentua partikula modala denean.

37 Perpaus-mailako kokapena da partikula modal germanikoekin egin daitekeen beste paralelismo bat. Beroriek erdiko eremura (ing. *middle field*) mugatuta daude. Esaterako:

(i) *Er bat ja das Buch gelesen.* (cf. 39b)

bera.MASK LAG PART ART.NEU liburu irakurri

'Berak liburua irakurri du JA'

(ii) \**Ja hat er das Buch gelesen.*

PART LAG bera.MASK ART.NEU liburu irakurri

(iii) \**Er hat das Buch gelesen ja.*

bera.MASK LAG ART.NEU liburu irakurri PART

Azpiatal honetako osagaiak ere erdiko eremuan agertzen direlakoan nago aurreratuta dagoen aditzaren ondorengo kasuetan. Halaber, perpaus amaieran agertzen direneko kasuetan pentsa liteke informazio egiturak eragindako mugidengatik azaltzen dela toki horretan. Gogoan eduki dezagun euskararen egitura sintaktikoa alemanarena baino malguagoa dela; beraz, ez litzateke harritzekoa. Dena den, gehiago ikertu beharreko gaia da hau.



## 4.2. Bestelako partikulak hizketa-ekintzaren operatzaileak dira

Aurretik (§ 3.2.) Tan eta Mursellen (2018) ildotik euskarazko tradizioko partikula modalak ikertu eta ondorioztatu dut ebidentzial-epistemiko modalak direla froga sintaktikoetan oinarrituta (mendeko perpausetan txertatzeko aukera eta, are gehiago, indar ilokutiborik gabeko testuinguruetan agertzeko gaitasuna baitute); oraingoan *bada*, *baina*, *berriz*, *gero*, *ordea* eta ekialdeko hizkeretan jokabide bereizia duen *ote* aztertuko ditut argitzeko ea besteen moduan jokatzen duten ala hizketa-ekintzari eragiten dioten.

Mendeko perpausak bitan banatu behar dira (Coniglio, 2007) testuinguru nagusiko fenomenoak agertzea ahalbidetzen duten ala ez aintzat hartuta. Gramatika-lanetan jasotzen den bezala, partikula modal germanikoak ezin dira mendeko perpaus guztietan azaldu eta, Conigliok (2007) argudiatzen duen legez, perpaus nagusiko fenomenoak onartzen dituen mendekoetan soilik ager daitezke. Aurreko azpiatalean ikusi dugu orain aztergai ditugun markatzaileek hizkuntza germaniko eta erromantzeetako partikula modalen moduan jokatzen dutela; gauzak horrela, espero izatekoa litzateke euskarazko partikula modal hauek ere hainbat mendeko perpausetan agertzea. Hurrengo adibideek susmo hori baieztatzen dute<sup>38</sup>; hala ere, horietako batzuk horrelako testuinguruetatik guztiz baztertuta bide daude, seguru asko diskurtsoan egiten duten ekarpen interpretatiboek eraginda<sup>39</sup>:

- (44) a. Gainera, beldur nintzen karrikan lagun bat aurkituko nuela eta galdeginen zidala zer ari nintzen bada Baionan bakarrik. (Landart, 1999, 131. or.)  
 b. Ea, azaldu guztioi zer den bada behorra-agindu dio aurreneko ilaran eseritako triku iledun mutikoari. (Aranbarri, 2006, 140. or.)  
 c. Ez duela gero saldu, nahi zioian esplikatu. (Larzabal, 1992, 51. or.)

Dena den, ezin dira edozein mendeko perpausetan agertu eta ematen du indar ilokutiboa duten horietara mugatuta daudela ezin baitira izen osagarri perpausetan edo erlatibozkoetan erabili, 3. atalekoak ez bezala:

- (45) a. (\*gero) saldu (\*gero) ez duen (\*gero) azalpena...  
 b. Atzo (\*bada) etorri zen (\*bada) pertsona...

Gauzak horrela, atal honetako modalitate-markatzaileak hizketa-ekintzaren operatzaileak hartu behar direla proposatzen dut, indar ilokutiborik gabeko testuinguruetan ezin baitira azaldu. Hots, euren funtzioa hizketa-ekintzaren mailan kokatzen da eta zuzenean eragiten diote diskurtsoari. Dena den, partikula hauen ekarpena sakon ikertzea merezi du.

38 Berrikusle batek ondo adierazi duenez, testuinguru horiek diskurtso zuzenetik hurbil daude. Gauzak horrela, horrek ahalbide lezake partikulak mendeko perpaus horietan agertzea. Datu horrek oraingo hipotesia gehiago indartzen du agerian uzten baitu diskurtso zuzena beharrezkoa dela partikula horien erabilera zilegiztatzeko.

39 Adibide hauek ez ei dira hiztun guztientzat onargarriak.

## 5. ONDORIOAK

Artikulu honetan zehar euskaraz modalitatea adierazteko hainbat markatzaile aztertu ditut ikuspuntu sintaktiko batetik. Halaber, hizkuntzartekoan talde zabal eta lauso horretako osagaiak sailkatzeko erabiltzen diren irizpide bi eduki ditut hizpide: bateko, jokabide morfosintaktikoa, ea klitikoak, hizkiak ala partikula beregainak diren alegia; besteko, ea txertagarriak diren mendeko perpausetan eta, hala bada, zeinetan. Horiek aintzat hartuta argudiatu dut tradizioan partikula modaltzat hartu diren horiek (*ahal*, *al*, *bide*, *ei*, *omen* eta *ote*) hizkuntza germanikoen fenomeno horretatik urrun daudela eta tagalo edo kitxua hizkuntzetako markatzaileen antz handiagoa daukatela a) hizkiak direlako eta ez partikulak (Zwickyren eta Pullumen 1983ko ildotik ulertuta) eta b) indar ilokutiborik gabeko mendeko perpausetan ere ager daitezkeelako, hots, proposizioari eragiten diotelako (*al* galdera-markatzaileak salbu). Bestalde, hizkuntzalaritza germaniko eta erromantzean *partikula modal* (edo *diskurtsibo*) izenpean bildutakoek badute ordaina euskaraz: *bada*, *baina*, *berriz*, *gero*, *ordea* eta ekialdeko hizkeretan jokabide berezia duen *ote*. Aurrekoak ez bezala, hauek ez zaizkio beste osagai bati eransten, nahitaez behintzat, eta horietako batzuek *nz*-hitzeekin bat egiten dute *non demontre / debru...* egituraren ildotik. Halaber, markatzaile hauek ezin dira indar ilokutiborik gabeko testuinguruetan agertu; hau ere bat dator gramatika-lanetan partikula modaltzat jo ohi diren horien jokabidearekin. Modalitate-markatzaileak egoki sailkatzea funtsezkoa da beste hizkuntza batzuetako osagaiak konparatuz aztertu nahi baditugu, argi eduki behar baitugu markatzaile horiek zein multzori dagozkion eta, ondorioz, zein ezaugarri erkatu behar diren.

## 6. CORPUSA

- Aintziart, P. (2000). *Santiago oinez*. Elkar.
- Aranbarri, I. (2006). *Hizlandia*. Susa.
- Camino, I. (2009). Mugako hitzun eta aldaerak ipar-mendebaleko Zuberoan. *Fontes Linguae Vasconum*, 111, 153-218.
- Camino, I. (2017). *Amikuzeko eskualdeko (h)euskara*. Euskaltzaindia.
- Duden. (2021). *Duden Wörterbuch*. Duden Institut.
- Inchauspe, E. T. (1856). *Le Saint Évangile de Jésus-Christ selon Saint Mathieu traduit en basque souletin par l'abbé Inchauspe, pour le Prince Louis-Lucien Bonaparte*. Veuve Lamaignère née Teulières.
- Landart, D. (1978). *Aihen ahula: haur denborako hixtorio-mixterio*. Elkar.
- Landart, D. (1999). *Anaiaren azken hitzak*. Elkar.
- Larzabal, P. (1991). *Piarres Larzabal idazlanak II*. Elkar.
- Larzabal, P. (1992). *Piarres Larzabal idazlanak III*. Elkar.
- Oñederra, M. L. (1999). *Eta emakumeari sugeak esan zion*. Erein.
- Perurena, P. (2004). *Harrizko pareta erdiurratuak*. Euskaltzaindia.
- Sinadurarik gabe. (2005-07-28). Kostaldeko berri. *Herria*.
- Zabala, P. (2000). *Naturaren mintzoa*. Alberdania.

## 7. ERREFERENTZIAK

- Aikhenvald, A. (2015). Evidentials: Their links with other grammatical categories. *Linguistic Typology*, 19(2), 239-277. <https://doi.org/10.1515/lingty-2015-0008>
- Albizu, P. (1991). *Sobre la existencia del movimiento largo de núcleos en euskera* [Argitaratu gabeko eskuizkribua].
- Altube, S. (1930). *Erderismos*. Euskaltzaindia.
- Anderbois, S. (2014). On the exceptional status of reportative evidentials. *Proceedings of SALT*, 24, 234-254. <https://doi.org/10.3765/salt.v24i0.2424>
- Arregi, K. & Nevins, A. (2012). *Morphotactics: Basque auxiliaries and the structure of spellout*. Springer. <https://doi.org/10.1007/978-94-007-3889-8>
- Arrigarai, B. (1919). *Euskal-irakaspidea: o sea gramática del euskera, dialecto guipuzcoano*. San Buenaventura.
- van der Auwera, J. & Ammann, A. (2013). Epistemic Possibility. In M. S. Dryer & M. Haspelmath (arg.), *The World Atlas of Language Structures Online*. Max Planck Institute for Evolutionary Anthropology.
- Barandiaran, J. M. (1972). *Obras completas*. La Gran Enciclopedia Vasca.
- Bayer, J. & Obenauer, H.-G. (2011). Discourse particles, clause structure, and question types. *Linguistic Review*, 28(4), 449-491. <http://dx.doi.org/10.1515/tlir.2011.013>
- Biezma, M., Butt, M. & Jabeen, F. (2018, apirilaren 11-13). Polar questions vs. kya-questions in Hindi/Urdu. *GLOW 41* [aurkezpena]. Research Institute for Linguistics / Hungarian Academy of Sciences, Budapest, Hungaria.
- Campión, A. (1884). *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara*. Eusebio López.
- Chaho, A. (1836). *Études grammaticales sur la langue euskarienne*. Arthus Bertrand.
- Cardinaletti, A. (2011). German and Italian modal particles and clause structure. *The Linguistic Review*, 28(4), 493-531. <https://doi.org/10.1515/tlir.2011.014>
- Condoravdi, C. & Kiparsky, P. (2002). Clitics and clause structure. *Journal of Greek Linguistics*, 2(1), 1-39.
- Coniglio, M. (2007). German modal particles in root and embedded clauses. *Working Papers in Linguistics*, 17, 109-141.
- Coniglio, M. & Zegrean, I. (2012). Splitting up Force, evidence from discourse particles. In L. Aelbrecht (arg.), *Main clause phenomena: New horizons* (229-256. or.). John Benjamins.
- Déchaine, R.-M., Cook, C., Muehlbauer, J. & Waldie, R. (2017). (De-)constructing evidentiality. *Lingua*, 186-187, 21-54. <http://dx.doi.org/10.1016/j.lingua.2016.10.001>
- Dehé, N. & Kavalova, Y. (arg.). 2007. *Parentheticals*. John Benjamins. <https://doi.org/10.1075/la.106>
- Döring, S. (2007). *Zur Kontextverschiebung bei deutschen Diskurspartikeln* [Argitaratu gabeko master-lana, Humboldt-Universität zu Berlin]. edoc-Server. <https://doi.org/10.18452/14142>
- Duguine, M. & Irurtzun, A. (2008). Ohar batzuk nafar-lapurterazko galdera eta galdegai indartuez. *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo*, 51, 195-208. <https://doi.org/10.1387/asju.9779>

- Duguine, M. & Irurtzun, A. (2014). From obligatory *wh*-movement to optional *wh-in situ* in Labourdin Basque. *Language*, 90(1), e1-e30. <https://doi.org/10.18148/hs/2014.v0i0.11>
- Eguzkitza, A. (1991). Partikula modalez ohar pare bat. *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo*, 25(3), 961-963. <https://doi.org/10.1387/asju.8265>
- Elordieta, A. (2001). *Verb movement and constituent permutation in Basque*. LOT.
- Elordieta, A. & Haddican, B. (2016). Strategies of verb and verb phrase focus across Basque dialects. In B. Fernández & J. Ortiz de Urbina (arg.), *Microparameters in the grammar of Basque* (221.-242. or.). John Benjamins. <https://doi.org/10.1075/lfab.13.08elo>
- Elordieta, G. (1997). *Morphosyntactic feature chains and phonological domains* [Argitaratu gabeko doktore-tesia]. University of Southern California.
- Etxebarria, J. M. (2016). *Gorbeia inguruko etno-ipuin eta esaundak II*. Euskaltzaindia.
- Etxepare, R. & Uria, L. (2016). Microsyntactic variation in the Basque hearsay evidential. In B. Fernández & J. Ortiz de Urbina (arg.), *Microparameters in the grammar of Basque* (265.-288. or.). John Benjamins. <https://doi.org/10.1075/lfab.13.10etx>
- Euskaltzaindia. (1987). *Euskal gramatika. Lehen urratsak II*. Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia. (2016). *Euskaltzaindiaren hiztegia*. Euskaltzaindia.
- Faller, M. (2002). *Semantics and pragmatics of evidentials in Cuzco Quechua* [Argitaratu gabeko doktore-tesia]. Stanford University.
- Faller, M. (2017). Reportative evidentials and modal subordination. *Lingua*, 186, 55-67. <https://doi.org/10.1016/j.lingua.2014.10.004>
- Gèze, L. (1873). *Éléments de grammaire basque, dialecte souletin: suivis d'un vocabulaire basque-français et français-basque*. Veuve Lamoignon.
- Greed, T. (2017). Evidential coding in Lezgi. *Languages of the Caucasus*, 2, 3-33. <http://dx.doi.org/10.5070/L921035793>
- Grosz, P. (2005). *dn in Viennese German: The syntax of a clitic version of the discourse particle denn* [Argitaratu gabeko master amaierako lana]. Vienako Unibertsitatea.
- de Haan, F. (2013). Coding of Evidentiality. In M. S. Dryer & M. Haspelmath (arg.), *The World Atlas of Language Structures Online*. Max Planck Institute for Evolutionary Anthropology.
- Hack, F. M. (2014). The particle *po* in the varieties of Dolomitic Ladin-grammaticalisation from a temporal adverb into an interrogative marker. *Studia Linguistica*, 68(1), 49-76. <https://doi.org/10.1111/stul.12022>
- Hualde, J. I. & Ortiz de Urbina, J. (2003). *A grammar of Basque*. De Gruyter Mouton. <https://doi.org/10.1515/9783110895285>
- Irurtzun, A. (2016). Strategies for argument and adjunct focalization in Basque. In B. Fernández & J. Ortiz de Urbina (arg.), *Microparameters in the grammar of Basque*, (243.-264. or.). John Benjamins. <https://doi.org/10.1075/lfab.13.09iru>
- Kehayov, P. (2008). *An areal-typological perspective to evidentiality: the cases of the Balkan and Baltic linguistic areas* (Balkani ja Baltikumii keelte evidentsiaalsussüsteemid areaal-tüpoloogilisest perspektiivist). Filosoofiateaduskond.

- Korotkova, N. (2021). The embedding puzzle: Constraints on evidentials in complement clauses. *Linguistic Inquiry*, 52(1), 210-226. [https://doi.org/10.1162/ling\\_a\\_00363](https://doi.org/10.1162/ling_a_00363)
- Korta, K. & Zubeldia, L. (2016). *Bide* partikula: eduki doxastikoa eta ebidentziala. *Gogoa*, 15, 11-29.
- Lafitte, P. (1944). *Grammaire basque (Navarro-labourdin littéraire)*. Le Livre.
- Lakarra, J. A. (2019). *Bon-lbor-lbol-* familiaren berreraiketarako (II): Etimologia, partikulen historiaurrea eta hots-lege batzuen irregularitateez. In I. Epelde & O. Jauregi (arg.), *Bibotz ahots. M. L. Oñederra irakaslearen omenez* (377.-396. or.). UPV/EHU.
- Larramendi, M. (1729). *El imposible vencido. Arte de la lengua bascongada*. Antonio Joseph Villargordo.
- Lau, M. L. & Rooryck, J. (2017). Aspect, evidentiality, and mirativity. *Lingua*, 186-187, 110-119. <http://dx.doi.org/10.1016/j.lingua.2016.11.009>
- Leiss, E. (2012). Epistemicity, evidentiality, and theory of mind (ToM). In W. Abraham & E. Leiss (arg.), *Modality and theory of mind elements across languages* (39.-66. or.). De Gruyter Mouton. <https://doi.org/10.1515/9783110271072.39>
- Lizardi-Ituarte, A. (2019). *Basque outer particles: A semantic and syntactic analysis for e\** [argitaratu gabeko eskuizkribua]. UPV/EHU.
- Lizardi-Ituarte, A. (2020). *Intonationally integrated complex speech acts basque discourse particle ba in interrogatives* [Argitaratu gabeko eskuizkribua]. UPV/EHU.
- Mitxelena, K. & Sarasola, I. (2017). *Orotariko euskal hiztegia*. Euskaltzaindia.
- Monforte, S. (2015). *Galdera partikulak euskaraz* [Argitaratu gabeko master amaierako lana]. UPV/EHU.
- Monforte, S. (2020a). Diachronic hypotheses accounting for synchronic variation: the case of the Basque particle *ote*. In E. Santazilia, D. Krajewska, E. Zuloaga & B. Ariztimuño (arg.), *Fontes Linguae Vasconum 50 urte. Ekarpen berriak euskararen ikerketari / Nuevas aportaciones al estudio de la lengua vasca* (437.-451. or.). Nafarroako Gobernua. <https://doi.org/10.35462/fontes50urte.28>
- Monforte, S. (2020b). Galdera partikulak euskaraz. *Fontes Linguae Vasconum*, 130, 399-424. <https://doi.org/10.35462/flv.130.2>
- Monforte, S. (2020c). *Galderetako -a, al eta ote partikulak euskaraz. Sintaxia, mikroaldakortasuna eta interpretazioa* [Doktore-tesia, UPV/EHU]. ADDI. <http://hdl.handle.net/10810/49782>
- Monforte, S. (2020d). Syntactic analyses of modal particles through the microvariation of Basque *ote*. *Glossa: A Journal of General Linguistics*, 5(1), 1-29. <https://doi.org/10.5334/gjgl.1179>
- Monforte, S. (2021). *Ote* partikularen interpretazioaz. *Uztaro*, 119, 95-119. <https://doi.org/10.26876/uztaro.119.2021.6>
- Munaro, N. & Poletto, C. (2002). Ways of clausal typing. *Rivista di Grammatica Generativa*, 27, 87-105.
- Navarro, J., Navarro, J. & Andueza, M. L. (2008). *Lizarraga Ergoieneko euskara: Lizarraa Ergoienako auskera*. Nafarroako Gobernua.
- Ortiz de Urbina, J. (1993). Checking domains in Basque and Breton. *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo*, 27(3), 751-775. <https://doi.org/10.1387/asju.8373>

- de Rijk, R. (1969). Is Basque an SOV language? *Fontes Linguae Vasconum*, 1(3), 319-352.
- de Rijk, R. (2008). *Standard Basque: A progressive grammar*. Massachusetts Institute of Technology Press.
- Rooryck, J. (2001). Evidentiality, Part I. *Glott International*, 5(4), 125-133.
- Scherf, N. (2017). The syntax of Swedish modal particles. In J. Bayer & V. Struckmeier (arg.), *Discourse particles: formal approaches to their syntax and semantics* (78.-99. or.). De Gruyter. <https://doi.org/10.1515/9783110497151-004>
- Speas, P. (2008). On the syntax and semantics of evidentials. *Language and Linguistics Compass*, 2, 940-965. <https://doi.org/10.1111/j.1749-818X.2008.00069.x>
- Tan, J. (2019). *Evidentiality in Tagalog* [Argitaratu gabeko doktore-tesia]. Universidad Autónoma de Madrid.
- Tan, J. & Mursell, J. (2018). Embedding evidence in Tagalog and German. In Ayoub, D., Celle, A. & Lansari, L. (arg.), *Tense, aspect, modality, and evidentiality: Crosslinguistic perspectives*, (185.-212. or.). John Benjamins. <https://doi.org/10.1075/slcs.197.09tan>
- Txillardegi [Álvarez Enparantza, J. L.]. (1984). *Euskal azentuaz*. Elkar.
- Ulibarri, K. (2015). *Dotrinazko sermoitegia: galduriko hizkerak eta dialektologia historikoa* [Doktore-tesia, UPV/EHU]. ADDI. <http://hdl.handle.net/10810/15971>
- Urquizu, P. (1996). *Gramática de la lengua vasca*. UNED.
- Van Bogaert, J. & Leuschner, T. (2015). Dutch ('t) *schijnt* and German *scheint*('s): on the grammaticalization of evidential particles. *Studia Lingüística*, 69(1), 86-117. <https://doi.org/10.1111/stul.12030>
- Waldie, R. J. (2012). *Evidentiality in Nuu-chah-nulth* [Argitaratu gabeko doktore-tesia]. University of British Columbia Library.
- Wilbur, Th. (1981). Basque syntax. *Iker*, 1, 169-186.
- Zeisler, B. (2016). Context! Or how to read thoughts in a foreign language. *Journal of South Asian Languages and Linguistics*, 3(2), 197-221. <https://doi.org/10.1515/jsall-2016-0010>
- Zubeldia, L. (2008). Ebidentzialitatearen eta modalitatearen arteko harremanaz. *Gogoa*, 8(2), 159-176. <https://doi.org/10.1387/gogoa.3520>
- Zwicky, A. M. & G. K. Pullum. (1983). Cliticization vs. Inflection: English N'T. *Language*, 59(3), 502-513. <https://doi.org/10.2307/413900>